

BERRIGARA


6. zenbakia

Jardun elkarte, Bergara

1991, Urtarrilak 25



Armando Gallastegi



Txomin Pineda,
Berea ez
den gerran
(Koadernillo berezia)



T. Lissitskaia,
Moskutik
Bergarara



Ramones
Txibistora
martxoan

**EUSKARAK AEK
BEHAR DU**




**MATRIKULA
ZABALIK**

Otsailak 2, larunbata arratsaldeko 5' 30etan
" La Casilla "-n (BILBO)

MAILA GUZTIAK, EGA eta ALFABETATZE.
Bulego orduak: 9 - 1 eta 6 - 9

Barrenkale 18, 1goa Tfnoa: 76 54 11



EUSKARAREN ERABILERA INDARTZEKO ELKARTEA

- * EUSKARAZ IRAKURRI
- * EUSKAL KULTURA GOZATU
- * EUSKARAZ EROSI
- *
- * EUSKARAZ BIZI !

DENA EGIN DAITEKE ZURE LAGUNTZAREKIN

EGIN ZAITEZ BAZKIDE !

ERROTALDE JAUREGIA

TFNOA: 76 03 97



ESPALOIAN

ALDASORO

Orain PREZIO BEREZIAK eta BEHERAPENAK garaiko artikuluetan:

OINETAKOAK, BOLTSAK, ANTEZKO JAKA ETA GONAK.

BERGARA

OIÑATI

LEGAZPIA

BERRIGARA

Argitaratzailea:

Jardun Elkartea

Errotalde Jauregia, 20.570 Bergara

Tfnoa: 760397

Laguntzailea: Bergarako Udala

Zuzendaria:

Miguel Angel Elkoroberezar

Erredakzioa: Jon Andueza

Maketazioa:

Edume Arenaza. Jon Andueza

Publizitatea eta harpidetzak:

Ignazio Irigoien. Edume Arenaza

Tfnoa: 760397

Erredakzio-kontseilua: Jose Angel

Mikeo, Estepan Plazaola eta Juan

Martin Elxepuru

Kolaboratzaileak: Josu Oregi,

Antonio Urzelai, Maripi Laskurain,

Silvia Sanz, Ainhoa Lete, Jon A.

Bengoa, Mikel Lizarralde, Monika

Belastegi, Mikel Elkoroberezar,

Josune Iñarra eta Xabier Aranburu

Argazki laborategia: Ion Gurutz

Landa, Armando Gallastegi, Benito

Cantero, Miren Leturia, Kepa

Retolaza, Jose Alberto Eguren,

Jose I. Millan, Jose Aguayo, Rafael

Vicente, Juan Tabares, Jose A.

Jauregi eta Kifu

Komiki eta marrazkiak Josu Okina,

Antonio Arrillaga eta J. Balentziaga

Inprimategia:

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Ofati)

Banaketa ardura:

Txantxangorri Taldea

Copyright:

BERRIGARA

Tirada: 2.000 ale

Lege gordailua: SS 50/91

BERRIGARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta erizien erantzunkizunik.



25 OSTIRALA

• **Zinea:** "Henry & June", 10.30etan.

• **San Pauloak:** Uberan, eta festari hasiera emateko, afari herrikoia eta trikitrilariak.

• **Erakusketa:** Ostiralean hasi eta otsailaren 10era arte, Pello Alberdiren margo erakusketa Kultur Etxean.

• **Soraluzen:** Gaztetxean, *Sedientos* eta *Global Warming* taldeen emanaldia.

• **Goardiako farmazia:** Egunez: Mozos (San Pedron) Gaeuz: Morales (Arrasaten).

26 LARUNBATA

• **Zinea:** "Rocky V", 5etan eta 7.30etan; 10.30etan, berriz, "Henry & June".

• **Ikastaroa UNEDen:** J.A. Abasoloren eskutik, Indusketa Metodoak eta Historiarako metodologia. Goizeko 10etan hasita.

• **San Paulo Txiki:** Hasteko Meza, eta ondoren Uberako gazteek egindako antzerkia. Era berean, trikitrilariak ibiliko dira egun osoan zeharjaia alaitzen.

• **Pilota partiduak:** Frontoian, 4.30etan hasita, honako neurketa hauek ikusteko aukera: Satrustegi-Urra / Zabalala-Etxenagusia; Arteaga-Errasti/Etxaniz-Zezeaga; eta Ansola-Unsain / Herran-Andueza VI.

• **Kontzertua:** Gaztetxean, 11etan hasita, *Quattro Clavos* musika taldearen emanaldia.

• **Elgoibar:** gaueko 10.30etan, Gaztetxean, *Kiowak* taldearen emanaldia.

• **Goardiako farmazia:** Egunez: Camacho (Bidekur) Gaeuz: Azkoaga (Arrasaten).

27 IGANDEA

• **Zinea:** "Rocky V", 5etan, 7.30etan eta 10.15etan.

• **Plazako dantzaldia:** 6.30etan hasita, dantzaldia *Korkoil* taldearen eskutik.

• **San Paulo:** goizeko 11etan Meza, eta ondoren III. Pilota Txapelketaren finala frontoian: Gutierrez eta Eguren, Beitia eta Agireren aurka. Igandean ere trikitrilariak izango ditugu festa girqtzen.

• **San Bizenti jaia:** Angiozarko Parteitti auzoan, 12.30etan Meza, eta ondoren luntxa soinu-joleekin.

• **Goardiako farmazia:** Egunez: Camacho (Bidekur) Gaeuz: Español (Arrasaten)

28 ASTELEHENA

• **Zinea:** "Rocky V", 7.30etan.

• **Goardiako farmazia:** Egunez: Puy (Barrenkale) Gaeuz: Corcuera (Arrasaten).

29 ASTEARTEA

• **Goardiako farmazia:** Egunez: Estella (Matxiategi) Gaeuz: Irizar (Arrasaten)

30 ASTEAZKENA

• **Bideozaleen batzarra:** 7.30etan, Kultur Etxean.

• **Goardiako farmazia:** Egunez: Estella (Matxiategi) Gaeuz: Amezua (Arrasaten)

31 OSTEGUNA

• **Goardiako farmazia:**

Aukeran...

Pilota partiduak: Larunbatean, 4.30etan, pilota partidu interesgarriak frontoian. Besteak beste, Etxaniz eta Zezeaga bergararrek osatutako bikotea ikusteko aukera.



Ziripot

Bidekurutzeta, 11 Tfnoa: 76 11 41

GIPUZKOA
HORTZ-KLINIKA

Dok.a Marisa Porta Peña BERGARA
Dok.a Gabriela Porta Peña Simon Arrieta 3
Dok. Pablo Jose Marmol Tfnoa: 76 38 54

ESPOLON

Ingleseko klaseak



haur eta nagusientzat

Deitu 10etatik

12 t'erdietara

76 03 53 Tfno.ra.

School of English

BERGARA

Ibargarai 31, Barruko Plaza. BERGARA

Kiñu

ARGAZKIDENDA

ARGAZKILARIAK

ARTEKALE 15
Tfnoa: 76 58 05
BERGARA



**BERGARAKO ZABORTEGI
DESKONTROLATUA**

Bada Bergaran eta zehatzago esateko San Blas edo Muñao auzoaren barrenean kantera zahar bat, Zubiberri izenez ezagutzen dugun lekutik ehun bat metrotara.

Orain dela urte pare bat Bergarako Udalak, hilaren bigarren martitzenean biltzen dituen traste zaharrak leku horretara eramateari ekin zion, ondoren bertan erretzen zituztelarik, baina keza batzuk izan ziranez gaur egun beste leku batetara eramaten dituzte. Guzti hau gertatzen zen garaian, zenbait tailer txikitatik eta dendetatik zikinak ekartzeari ekin zioten, hori zela eta

Udaletxeak kontenedore batzuk jartzea erabaki zuen. Baina mundu honetan denetatik gaudenez, badira kontenedore barrura bota ordez zikin guziak lurtean zabaltzen duenik. Gainera badira banaka batzuk suarekin jolastea atsegin zaienak, eta inguruan inor ageri ez denean zikinak erretzen saiatzen direnak, inguru guziak arrisku bizian jartzen dituztela konturatu gabe, besterik ez bada ere joanzen urtean pare bat sute izan ziren.

Zuzen jokatu eskerio ez dago ez ordutan eta ez kutuan ibili beharrik, batzuk ohi duten bezala, eta bide batez honelako kexak mututuko lirakeke.

Irakurle, gonbite bat zabaltzen dizut Zubiberri ingurura etor zaitezen aste honetan, eta otsailaren lehen astean San Blasak ospatzera, eta ikusiko duzu nolakoa den zabortegei deskontrolatua.

Sabin Lonbide

**Bialdu zure eritzi eta
iradokizunak
BERRIGARARA.**

HALTZARI

FAGOR ALTZARIEN BANATZAILEA
SUKALDERAKO ALTZARIAK

BOLU 24 fnoa: 76 30 57
BERGARA

**Aldoka
Maldoka**

Taberna

KRUZ GALLASTEGI
BERGARA

ANDYZV

ERAIKUNTZA
MATERIALEN
BILTEGIA.

Telleriko Lana Pol/Ind. San Juan
C-1-B Pab. Tfnoa: 76 01 41
Faxa: 76 00 58 BERGARA

• ERITETXEAK	
Osasun etxea	76 10 82
Larrialdiak	76 12 94
Arrasateko ospitalea	79 53 00
• GURUTZE GORRIA	
Bergara	76 55 76
• DYA	
Antzuola	76 62 91
• ANBULANTZIAK	
Bergaran	76 13 59
Gipuzkoako anbulan.	45 87 44
• SUHILTZAILEAK	
Zubillagan	78 28 00

• POLIZIA	
Udaltzaingoa	76 14 69
Ertzaintza	76 53 40
• GARRAIOAK	
P.E.S.A.	76 16 46
Taxiak	76 19 50
• HIRUGARREN ADINA	
Mizpirualde	76 13 68
Aitonak	76 21 40
• BESTELAKO ZERBITZUAK	
Udaletxea	76 39 42
Epaitegia	76 14 72
Kiroldegia	76 56 41
Igerilekuak	76 20 51
Kultur Etxea	76 44 46
IMI	76 55 49





San Antonak bukatu eta Uberakoak hasi

Auzoak jaietan

San Anton jaiak bukatu berri, gainera datozkigu Uberako San Pauloak.

Joan direnei buruz, aipatu giro ederra bizi izan zutela San Antonen. Afari herrikoia sagardotegian, jolas ugari, eta hori bai, ardoa eta lukainka hurbildu ziren guztientzat.

Mus Txapelketan 34 bikote apuntatu ziren, irabazleak Juan Fresnillo eta Francisco Navas izan genituelarik.

Tutean, berriz, 16 bikote, eta irabazleak Felix Idigoras eta Gregorio Lazkano.

Lerro hauek kaleratu orduko, ostera, jaigiroa izango dugu Uberan ere. Gaur bakailu ederra auzokoentzako afarian. Bihar Meza, trikitrilariak, eta Uberako gazteek egindako antzerkia. Eta igandean, festarekin bukatzeko, trikitrilariak eta III. Pilota Txapelketaren finalak.

☐ Bide mozketak

Urak bideratzeko lanak direla eta, Martoko eta Zubieta kaleetan bidea moztu egingo da kotxeentzat.

☐ Nuklearren kontra

Larunbatero, 7etatik 9etara *Eguzkiak* nuklearren kontrako sinadurak batzeko mahaia jarriko du plazan.

☐ Luis M. Azkargorta

Asteartean Madrilen epaitu zuten, Orozkoko koartelari erasotzearen salaketapean. Fiskalak 6 urteko zigorra, eta abokatuak, al-diz, askatasuna eskatu zuen.

☐ Zeramika erakusketa

Otsailaren 3ra arte, Kultur Etxean izango ditugu ikusgai Marivi Peñaren lanak. Tornuko zeramika, ohizkoa, irudikorra, esmalteak, metalezko isladak...



✓ Obrak epaitegian

Jauriaritzak onespena eman eta gero, iaister hasiko dira obrak epaitegian. 107 milioi pztako gastuaz, sala berri bat (laugarrena), elbarrituentzako igogailua eta liburutegia jarriko dira, hainbat konponketa egiteaz aparte.

Euskara bultzatzeko Elkarten bilera

Joan den astean, Errotalden bildu ziren Arrasateko AED, Oñatiko *Laixan*, Aretxabaletako *Beinke*, Antzuolako *Idolaz* eta Bergarako *Jardun* elkarten ordezkariak.

Gehienbat ere igande honetan Zarautzen egingo den Euskal Kulturaren Batzarra aztertu zuten. Batzar horretan, hain zuzen, euskara bultzatzen diharduten elkarteak bilduko dira, elkarrekin hainbat gai jorratzeko.


Goian aipaturiko bost elkarteek, bestalde, Eskualde mailako lehenengo lan-taldeak osatzea erabaki zuten.



BOLINTXO
OKINTEGIA, S. A.
ETA ORAIN EIBARREN
IBARKURUTZ 4 an.

Tfnoa: 76 16 93
BERGARA

Tfnoa: 79 63 42
ARRASATE



Barrankale, 3. BERGARA. telf.: 943-765719

Pintxoak, eguneroko menua eta karta bereziak ditugu.


Betiko eta oraingo sukaldaritzak.

✓ **Euskaraz erosi**

Udaleko Euskara Zerbitzuak, komertzio munduan euskara bultzatzeko helburua duen kanpaina jarri du martxan.

Etkez etxe koadernillotxo bat banatzeaz gain (bertan erosketen zerrenda apuntatzeko), dendatan kutxa batzuk jarriko dira, 15.000 pzta.ko zozketan sartu nahi dutenen izenak jasotzeko.

Animatu, eta hori bai: Erosketak euskaraz!



✓ **Martxoaren 10ean, Ramones**

Bolada ona bizi du San Juango Txibisto dantzalekuak. Joan den asteburuan Euskal Herriko talde onenatarikoa hurbildu baten zuzeneko diska grabatzera, martxoaren 10erako iragarri digutena ez da makala.

Ramones taldea etorriko da egun horretan Txibiston zuzeneko emanaldia eskaintzera. Antza denez estatubatuarrek gusto hartu diote Euskal Herriari; azken bi urteotan Donostian izan bait ditugu jotzen.

Oraingoan, beraz, are eta hurbilago: Bergaran bertan.



✓ **Hertzainak, arrakasta haundiz**

Ostiralean lagun ugari bildu baziren Hertzainak taldearen emanaldia ikustera, iarunbatean goiko puntaraino bete zen Txibisto. Giro aproposa, beraz, eta soinu ezin hobea. Ederto ekin diote zuzeneko LP-ari!

YON BILBAO
 INSTALAZIO ELEKTRIKOAK ATEZAIN AUTOMATIKOAK
 MAKINARIA
 DOK. FLEMING 11 Tfnoa: 76 28 05 BERGARA

MAKAILO
 BAKALAU **ETXEA**
 KAZUELAK
 GERTATZEZ DITUGU
 IBARGARAI 15


BASTERA
 MODA ETA LAGUNGARRIAK
 T.Aranzadi Tfnoa: 761008 BERGARA

iRUDI
 ERLOJUTEGIA
 BITXITEGIA
 SAN PEDRO 11, Tfnoa: 76 51 65



✓ **Bederen 1**

Larunbat gauean, Mariaren Lagundian *Bederen 1* taldea izan genuen *Jácques eta nagusia* Milan Kunderaren obrarekin. Ez zen jende asko hurbildu, baina izan ginenok izugarri ondo pasatu genuen. Bi ordu inguru iraun zuen komedia honek, eta arreta haundiz jarraitu genuen Jordi Mesalles-ek zuzendutako aktoreen lan bikaina: eskenatokia zoragarria, eta argien jolasa ederra benetan.



✓ **Goardiako farmaziak**

Udalak bultzatuta, egun hauetan goardiako farmazien komarkalizazioaren kontrako sinadura bilketa egin da, gero KIUBen bidez protesta tramitatzeko; bildu den sinadura kopuruagatik, gainera, argi gelditu da herritarren desadostasuna. Gogoratu hilabete bakoitzeko 2. hamabostaldian, gaueko 10etatik goizeko 9etara, Arrasatera jo behar dela.

✓ **Zuhaitzak botatzeko araudia**

Alkatearen dekretu bat medio, aurrerantzean Udalaren baimena beharko da ingurune urbanoan zuhaitzak botatzeko. Eskaria luzatzerakoan hainbat datu eman beharko da: zenbat bota nahi diren, zer espezieetakoak, non, zergatik... eta gero derrigorrez beteko da Udalaren erabakia. Kontrola, ekologisten aspaldiko eskaria genuen.




✓ **Abixada Haundiko tren**

Jaurilaritzako teknikariak Labegaraieta eta San Kristobal inguruetan ibili dira, luraren azterketa geologikoa burutzen. Euskal Herriko hainbat leku analizatzen ari omen dira, Abixada Haundiko Trenaren bidea erabakitzeko. *Eguzkik*, bere aldetik, proiektuak Bergarako ingurunea hondatuko lukeela salatu du.



LARRAÑAGA
AUTOGIDARIEN ESKOLA




BERGARAKO UDAL EUSKALTEGIA

EUSKALTEGIAN DIHARDUTEN TALDEAK OSATZEKO DEIALDIA

IZEN EMATEA: URTARRILAREN 25era ARTE
HELBIDEA: BARRENKALE, 33 - 2.a

Tfnoa: 76 44 53



Tatiana Lissitskaia

Hotzetik etorritako emakumea

- Bost urte daramatzazu Sobiet Batasuneko gimnasia erritmikoko selekzioaren arduradun bezala. Zertan datza zure lana?

- Konkretuki, nire lana gimnasia selekzioaren entrenamentuak planifikatzea da, eta konpetizioen programa prestatzea. Taldearen lan-erritmoa erabakitzen dut, eta gimnasten osasun edota ikasketen kontrola eraman.

- Zer nolako momentua bizi du gaur egun gimnasiak Sobiet Batasunean?

- Sobiet Batasunak urte asko eman zituen Bulgariaren atzetik. 1987an, ordea, gauzak aldatzen hasi ziren. Urte hartan, Bulgarian bertan jokatzen genuen Munduko Txapelketa; ez zen erraza izan, baina garaipena eskuratu genuen. Orduetik, bai Seuleko Olinpiadetan eta bai ondorengo Txapelketetan urrea gure neskek lortu dute. Gimnastek ospe handia dute han, eta beraz, sasoi onean gaudela esan behar.

- Askok irauko al du domeinu horrek?

- Hori neska gazteen

prestaketaren arabera ikusi beharko da.

- Zuk ezagutzen dituzu gazte horiek. Nola datoz?

- Jende prestua dator. Segimendu zehatza egiten diegu, eta nik uste jasoko ditugula lan horren emaitzak. Gainera zera aipatuko nuke, gimnasta trebeak egoteaz gain goi-mailako entrenatzaileak ditugula; eta hori oso garrantzitsua da, sekretua lan sistema egokia ezartzean dagoelako.

- Eta gainontzeko nazioak. Zer mailatan ikusten dituzu? Zeintzuk dira etsairik gogorrenak?

- Espainiak, adibidez, gorakada handia egin du, ederto ibili dira azken konpetizioetan. Bulgaria, Alemania, Canada... eta guztiak ere prestatzaile sobietarrekin ari dira lanean.

- Zer itxaron dezakegu 92ko Olinpiadetan?

- Gimnasten karrera laburra dela kontutan hartuta, seguraski belaunaldi aldaketa ikus dezakegu. Gaur ia ezegunak diren neska-mutilen ordua izan daiteke. Baina

Tatiana Lissitskaia berrogeitazortzi urte ditu. Moskun jaio zen.

Bergarar askok ezagutuko duzue bere alaba, Olga. Ekainean etorri, eta ordutik gure herriko gimnasia erritmikako taldea zuzentzen du.


Gabonetan Tatiana bere alaba bisitatzera hurbildu zitzaigun, eta hiru aste eman ditu hemen. Lerro hauek argitaratzen direnean seguruenik Moskun izango da bueltan; baina tira, pena merezi zuen emakume xarmant honen eritziak kaleratzea.

ikusi egin behar Tomaschenko, Eskaldina, etab.ek zer esaten duten.

- Orain arte gimnasia erritmikoaz jardun dugu. Dena den, *aerobic* modalitatean ere maisu zaitugu...

- 1980tik egiten dut *aerobica*, gustokoa izan dudalako. Kirol maila onartu zitzaionean, gainera, Sobiet Batasuneko Taldea prestatzeari ekin nion, eta hor ari gara jo ta ke, maila hobetuz. Maiatzean Ameriketako Txapelketan ia bigarrenak izan ginen.

- Utz dezagun alde batera kirola, eta sar gaitetzen ur sakonagoetan. Hemen uste dugun moduan, hain-



bestearino ari dira aldatzen gauzak Sobiet Batasunean?

- Gauzak hain azkar ari

dira aldatzen, goizean esnaterakoan ez dakigula nola aurkituko ditugun.

- Eta aldaketa horiek, onerako ala txarrerako?

- Azken hiru urteotan asko aldatu da eguneroko taupada politikoa. Onerako. Gaur egun jendeak Gobernuari buruz hitzegin dezake, eta ikusten dituen akatsak kritikatu. Iraultzaren balorazioak egin ditzazkegu... eta hain izan dira gogorrak urte guzti hauek erregimen totalitarioaren menpe...

Bestalde, sobietarrok pazientzia handia beharko dugu, itxaroten jakin. Garai txarrak datozkigu, traba ekonomiko handiak jasan beharko ditugu; baina noski, gauzak ezin dira egun bate-tik bestera guztiz aldatu. Akaso hamar urte... denbora asko beharko dugu aurreko sistemaren *bizio* guztiak desagertu arazteko.

- Lider ona al da Gorbachov transiziorako?

- Gorbachov-ek lan ikaragarria egin du Sobiet Batasunaren alde, eta baita Ekialdeko Europaren alde ere. Be-

rak emandako laguntzagatik elkartu dira bi Alemaniak, adibidez.


Dena den, aurreko garaian semea ere bada. Nik uste benetan aldatu nahi di-tuela gauzak, baina ez dakit erabaki asko bere orbitatik kanpo ez ote diren gelditzen.

"Gorbachov aurreko sistemaren semea ere bada"

- Mendebaldean gizon ospetsua dugu Gorbachov; Nobel Saria lekuko. Baina kaleko jendeak, zer eritzi dute sobietarrek berari buruz?

- Jendea aldaketaren alde dago. Jendeak askatasuna nahi du, mugitzeko, bizitzeko, hitzegiteko, pentsatzeko; eta gauza horiek dakartzan neurrian maite du jendeak Gorbachov. Halere, bera ere hain da berezia, hainbeste gorabehera izaten ditu... ga-ur ezkertera, bihar eskumara...eta jendearen eritzia, noski, gorabeherekin batera aldatzen da.


- Beste kontu bero bat. Nola bizi du Moskobitar batek Lituania, Estonia, Letonia, etab. bezalako errepublika independentisten arazoa?



- Nere ustez bi motatako errepublikak daude.

Alde batetik Lituania, Estonia, Letonia. Horiek independentziara arte segituko dute borrokan, eta lortuko dute helburua. Ulertzen dut ezberdinak direla, eta arrazoia dutela aske nahi izatean. Baina ez gaur, bapatean. Sobietar Batasunean, errepublika bakoitzak funtzio batzuk betetzen ditu sistema ekonomiko orokor baten parte bezala. Orduan, aldatketak bai baina poliki, astiro. Gauzak ondo pentsatuta eta ez presaren prezaz.

Bestalde, Ucraina, Bielorusia, etab. aurkitzen ditugu. Horien kasuetan, adibidez, Batasunaren barruan jarraitu beharko luketela pentsatzen



dut, ezberdintasunak ez dire-lako horren nabarmenak; eta gainera ze demontre, denok batera errazago gaudituko

dugulako krisialdia, bakoitzak bere kabuz baino.

- Hitzegin dezagun orain ezagutu berri duzun Euskal Herriari buruz. Gustatu al zaizu hemen aurkitu duzun bizimodua?

- Hemengo jendea oso eskuzabala iruditu zait, goxoa. Azken urteotan asko bidaiatu dudan arren, gutxitan aurkitu dut hemengoan berotasuna.

- Eta Bergara?

- Oso gustokoa dut. Herri lasaia, mundu guztiak eza-gutzen du elkar...giro apro-posita bertan bizitzeko.

- Zer gehiago goraipatuko zenuke?

- *Sansebastian*. Eta orokorrean, aintzinako edifizio eta monumentuei ematen zaien garrantzia. Sobiet Batasunean, Iraultza Haundiaren ondorioz astakeria ikaragarriak egin ziren, aurreko mendeetako aberastasunak (katedraleak eta eleizak, adibidez) jo ta txikituz. Neri pena handia ematen didate halako ekintzek, norberaren kultura eta historiari errespetua zor zaiolako.

- Txokantea iruditu zai-zun zerbait?

- Jendearen arteko harremanak, beti kalean. Arraroa suertatu zait euskaldunek ta-bernekin duten lotura estua, bigarren etxea bailitzan...eta imajinatzen dut kasu askotan lehenengoa izango dela, ez?

- Itzultzeko asmorik ?

- Bai, ziur.



J. ALBERTO
GOROSABEL
MENDIZABAL

MEDIKU - DENTISTA

Fraiskozuri 5, behea Tfnoa: 76 56 88

Mugica

GOZOTEGIA

ARTEKALE 3 Tfnoa: 76 10 34
BERGARA

ERREKI

ERRETEGIA

TXITXARRO ETA SAIHESKI JANA
ASTEBUKAERETAN

Fraiskozuri Enparantza
Tfnoa: 76 38 51

BERGARA

anezka

Oihal eta lenzerian
beherapenak

ESPOLOIA 8 BERGARA
Tfnoa: 76 59 25

YANIRE

FRUTADENDA

AZOKA PLAZA
Tfnoa: 76 52 34

**BRIKOLAIA
AUTOMOZIOA**


TURISMOAK, KAMIOIAK E.A.

Bolu Tfnoa: 76 44 04 BERGARA

Santiveri ETXEA


GERTATUTAKO JANGAIK
ETA ERREGIMENAKOAK
Zurradero 2, Tfnoa: 76 58 83
BERGARA

Aparkalekuen arazoa?



Luis Blazquez
56 urte

Aparkaleku gutxi dago. Ez dakit zer egin daitekeen, lurrazpikoak edo, kontua da derrigorrez behar direla gehiago.



Aitor Urzelai
19 urte

Uste dut aparkaleku gutxi dagoela. Soluziñua? Gehiago egitea, baina ez dut leku aproposik ikusten.



Joxepa Arando
56 urte

Nikustez dagoela hain gaizki, kotxe gehiegi baizik. Ez dakit ze soluziño bilatu leiken, akaso etxe gutxiago eta aparkatzeko toki haundiagoa utzi...



Maria Teresa Gabilondo
45 urte.

Gaizki erabiltzen dira. Pentsakera aldatu beharko genuke, gauza guztiak ezin direlako herri barruan jarri. Seminarioko patioan aparkalekuak jarzea, adibidez, lotsagarria iruditzen zait.

MABER

GIMNASIA-ETXEA

KULTURISMOA
MANTENIMENDU GIMNASIA ETA ZUZENKETAZKOA
EDOZEIN KIROL EGITEKO PISU-SISTEMA EGOKIAK
SASOIAN EGOTEKO BEHAR DITUZUN MAKINA ETA PISU MOTA GUZTIAK
URTE ASKOTAKO ESPERIENTZIA!

KOLDO ELIZALDE, 16 BEHEA.

Tfnoa: 76 56 17

BERGARA



Txomin Pineda Berea ez den gerran

Txomin Pineda. Bergararra. Francisco Pineda eta Visitación De la Cruz-en semea, bost anai-arrebaren artean hirugarrena.

Maiatzean soldaduska egitera deitu zioten Cadiz-eko San Fernandora. Bertan zegoela hogei urte bete zituen. Eta hilabete batzuk beranduago, ustekabeen Numancia itsasontzira eraman, eta Golko Pertsikora bidali zuten.

Espainiar armadako mariñelak Rotatik irten ziren egunean, Antena 3 telebistak mutil batzuk elkarrizketatu zituen, tartean Txomin bera. Pinedatarren etxean urrezkoa bailitzan gordetzen dute elkarrizketa haren grabazioa. Salan sartu, eta amak berehala jarri digu bideoa martxan: "Hau ez da gure gerra, ez dakit zer egiten dugun hemen".

Txominen hitzak dira.



BARRENKALE 10, Tfnoa: 76 18 22



VID-ART
BIDRIERA ARTISTIKOAK

VID-ART



NINIKA
IBARGARAI

BELANBIDE Z/G

Tfnoa: 76 23 30

BERGARA



Txomin Pineda, Rotatik irten zuen egunean

Soldaduskara joan zenean, Txominek ez zuen pentsatu ere egin Golkoko Gerrara bialduko zutenik.

Etxean nerbioak jota daude, batez ere ama. Urtarrilaren 10etik ez du semearekin hitzik egin. Egun osoa irrati eta telebisten bonbaketa informatiboa jasaten.

Aita ere urduri dago, hogeituroko kakamutikoak zertara eraman dituzten galdetzen.

Txominek hiru arreba ditu, eta 13 urteko anai bat. Mutikoak dagoeneko argi esan omen du etxean. *"Nik ez dut soldaduska egingo"*.

Visi De la Cruz

"Ekar dezatela lehenbailehen semea etxera"

Ettxera heldu garenean, Txominen amak ireki digu atea. *"Irratitik oraintxe ari dira esaten bueltan datoze-la; baina batek daki, hainbeste gauza entzuten dira, eta*

hain ezberdinak..."

Ia ezer galdetu gabe jarraitzen du. *"Hau ez da bizimodua. Gerra hasi zenetik lorik ere ez dut egiten, egun guztia zer pasatuko zain.*

Ohera ere irratia eramaten du".

Semea etxean ikusi arte ez da lasaituko. *"Badakit nerea datorrenean beste batzuk joan beharko dutela bere orde, eta benetan sentitzen dut euren amek pasako duten egoera. Baina bakoitzak berea maite du, eta nik Txomin etxean nahi du"*.

Ez zuen uste ...

Txomin Lanbide Heziketan ibili zen ikasten. Estudioak bertanbehera uztea erabaki zuen, eta soldaduskarako eskatuta zuen prorroga ezabatu

eta gero San Fernandora joan zen maiatzaren 20an. *"Badakizu, hogeituro bidean, soldaduskaren traba gainetik kendu nahi zuen"*.

Ez Txominek eta ez bere senideek ez zuten imajinatu ere egin gauzak horrenbestearaino okertuko zirenik. *"Sarritan deitzen zuen telefonoz, eta gerrarik aipatu ere ez. Nik uste azken ordura arte ez zietela ezer esan. Hara, etxera deitu zuenean eta Numanzia-n Golkora irten behar zuela esan zuenean... Nola liteke sekula itsasontzi bat ia ikusi ere ez duen mutikoa eramatea?"*.

YAZKI

<p>UME</p> <p>Irizar 3 Tfnoa: 76 16 54</p>	<p>GAZTE</p> <p>Ibargarai 8 Tfnoa: 76 54 73</p>
---	--

ederju

ERA ETA PREZIO GUZTIETAKO ALTZARIAK

Barrenkale 23
Tfnoa: 76 29 65
BERGARA

Informazio kaotikoa

Urte bukaera arte, ia aste-
ro deitzen zuen etxera.
"Txomin mutil lasaia da, ez
zen gehiegi kexatzen. Sukal-
dean zegoela, eta bazkaldu
behintzat ederto egiten
zuela..."

Baina urtarrilaren 10etik,
ez dute bere berririk jaso.
"Zuk uste posible dela, se-
mea gerrara eraman eta ha-
ren berririk inork eman nahi
ez? Deitu eta deitu, eta infor-
mazioa eskatzen duzunean
denek entzungor egin; nola
igartzen den ez direla euren
semeak bertan daudenak".

Komunikabideetako
bonbaketa informatiboak ere
ez omen du asko laguntzen.
"Azkenean ez duzu piperrik
ere ulertzen, ez dakizu zer
sinetsi eta zer ez, egoera
kaotikoa da hau".

Zergatik mutikoak?

Pinedatarrek ez dute gerra
honetan errudun argirik
ikusten. "Kulpa denena da,
zergatik ez dute kontua beste
era batera konpondu? Aus-
kalo zer interes dituzten!".

Kritika zorrotzak zuzen-
tzen dizkiote Espainiako
Gobernuaren posturari ere.
"Zertarako eraman dituzte?
Ez al zegoen jende prestua-
gorik? Ehundaka militar,
profesionalak, dirua kobrat-
zen, eta benetako orduan
gure kakamutikoak bial-
du..."

Erakunde ezberdinak ere
ez omen dira oso ondo porta-



Francisco Pineda eta Visitacion De la Cruz, Txominen gurasoak, etxeko salan semearen zain

tu. "Ez zaie inporta nola
zauden. Ez Espainiako Go-
bernuari, ez Eusko Jaurlari-
tzari, ezta Bergarako Udalari
ere; guk behintzat ez dugu
inoren laguntzarik jaso,
ezertarako. Akaso, Eusko
Alderdi Jeltzaleko Eduardo
Vallejo bilbotarraren joka-
era eskertu nahiko nuke,
Golkoan egon eta hona itzuli
zenean etxera deitu zigulako;
Txomin ikusi zuela, eta ondo
zegoela... sikiera hori!".

Kontsuelo modura ere,
etxeraino heldu zaizkie Eus-
kal Herriko gaztediaren pro-
testa-oihartzunak. "Ez dute
ezer konpontzen, baina tira,
eskertzekoak dira. Gazteek
beste askok baino buru eta
bihotz hobea erakutsi dute
oraingoan".

Lastima horrek hain gutxi
balio izatea.

Bueltatzen denean

Visik ez daki zer plater
prestatuko dion semeari
etxera itzultzen denean.
"Edozer gauza, hain da jatun
ona..."

Jakin badaki, ordea, Txo-
min Penintsulara bueltatzen
denean bera hantxe egongo
dela zain. "Esan dezatela
behingoz noiz datozen, eta
nora. Han egon nahi dut mu-
tikoa gogor besarkatzeko".

Javi (lehengusua)

"Soldaduska hasi eta lehenengo oporraldia eman zio-
te-
nean berarekin egon nintzen. Txominek ez zuen pentsatu
ere egiten Golkora joan zitekeenik. Ofizina batean zegoen,
eta nahiko ondo behintzat..."

"Azkenengo aldiz deitu zuenean nekatuta zegoela zioen,
ez zutela lorik egiten, egun guztia simulakroak egiten..."

Juan Carlos (laguna)

"Ez du inoiz itsasontzi bat zapaldu".

"Zer egiten dute han, istilutik hain hurbil; total, barkua
garbitu eta lau inuxenterik kopak ateratzeko?"

Pascual (laguna)

"Ez lukete han egon behar, eurak ez dira soldaduak,
joan daitezela profesionalak".

Oscar (laguna)

"Ni ere Ceutara noa laister. Hangoak Donostian eta
hemengoak Ceutan, hori ez dago ondo".

ZAPATODOS**BIGARREN BEHERAPENAK**

SAN PEDRO 14 Tfnoa: 76 55 42 BERGARA

IRUBIDE**TABERNA**Bazkariak, gosariak
afariak, e.a.

URTEAGA 9 Tfnoa: 76 25 69

Eguraldi txarrari, aurpegi ona!

Txomin & Marta

Lehenago eskeini genizuen argazkian Txomin bandeja eta guzti hurbildu bazitzaion Marta Sanchez-i, antza denez, insistitu ere insistitu zuen bergararrak. Dirudienez lagun minak egin ziren, eta argazki hau elkarrekin ateratzeko astia ere aurkitu zuten.



Euskaldunak golkoan

Txomin Pineda ez da Golkoan dagoen euskaldun bakarra. Argazkian, hain zuzen, Legazpiko Jose Ramon Camara, EAJko Eduardo Vallejo, Txomin eta Azpeitiko Juan Antonio Godoi ikusten ditugu.

Raul Senderrekin ere

Marta Sanchez-ekin harreman onak izateaz gain, Txominek beste hainbat lagun ezagutu ditu Golko Pertsikoan. Horren lekuko goiko argazkia, non bergararra Raul Sender komikoarekin agertzen zaigun. Berea ez den gerran egoteko, Txominek ederto jakin izan du eguraldi txarrari zer aurpegi erakutsi behar zaion.

Beheko

Taberna

MENESTRA ETA KONEJOA
DIRA GURE BEREZITASUNAK
ANGIOZAR Tfna: 76 55 74

MUGIKA

Harategia

Irala 5, Tfnoa: 76 13 00

URBIETA

Iturgintza

Zabalotegi 7, Tfnoa: 76 14 50

AGIRREBEÑA

Oinetakoak
Erropa Denda
Lenzeria

Urteaga 5, Tfnoa: 76 18 29

GIARTZU

(M.Isabel)

DERMOESTETIKA OSOKO ZENTROA

Laser izpien bidezko errekupeazioa
Errekupegailu elektronikoa
Korrente Kapazitatiiboak

Estetika Tratamenduak
Larruazal garbiketak
Kosmetika Espezializatua

Boni Laskurain 3, Beheak, Tfnoa: 76 35 71

• • • • •
Duela 50 urte, San Sebastian egunean, Loiolan ezkondu ziren Jose Barrutia Laskurain eta Maria Larrañaga Lete.

Joan den igandean, beraz, urrezko eztaiak bete zituzten senar-emazte hauek ere.

Ospakizuna, halere, domeka honetarako utzi dute. Osintxun meza entzun eta gero, Lasa jatetxean elkartuko dira senitartekoekin bazkaltzera.

On egin, eta mila zorion!



Zertan dihardute ba?

VALEN MOÑUX


Duela gutxi egin dako bileran, Bergarako Orfeo-ko Lehendakari



izendatu zuten. Bergararra, 29 urte ditu eta Udaletxean dihardu lanean

CRISTINA LARRAÑAGA

Orfeo-ko bileran ere, Cristina Larrañaga Zuzendaritza lanetarako konfirmatu



zuten. 24 urte, bergararra, Musika Eskolan egiten du lan.

• • • • •
Ehundaka urtetako ohiturari jarraituz, urtarrilaren 20an bildu ziren Angiozarreko Beheko Tabernan San Sebastian Kofradixako lagunak. Hogeitamar bat pertsona elkartu ziren; kofradixako kide bakoitzaren etxetik senitarteko bat, hain zuzen.

Eta aurten ere majo bazkaldu zuten patrioiaren egunean, bai horixe!



• • • • •
Hiru asteko atsedenaldia hartu du Berrigarako komikilaria den Josu Okinak, ikastaro batzuetan parte hartu asmoz. Haren lana ordezkatzeko, hurrengo hiru zenbakietan Antonio Arrillagaren marrazkiak aurkituko dituzue. Askok ikasi, Josu, eta ea laister batean hemen zaitugun tripa sendo horiek marrazten.



IMANOL IRIGARAI

Hogel urtetan zehar izan genuen Angiozarreko abade, eta Institutuan klaseak ematen ere ibili zen.



Jubilatua, Donostiako Elizbarrutiko argazki artxiboko arduradun izendatu berri dute.

ETXE-AUNDI
 Negozio bazkariak
 Ezkontzak
 Banketeak
 Torre Auzo 9, Tfnoa: 78 19 56
 OÑATI

OILAGORRA
TABERNA
 BARRENKALE 21 BERGARA

PUXKIN
 OINETAKOAK
 BEHERAPENAK
 D. IRALA.
 BERGARA Tfnoa: 76 21 17

Hau dok barreguria

Oin eztaikit hainbeste, baina sasoi baten tabernetan oso modan egon ziren erari konbinatuak. Batzuk oso ezagunak: "Kuba Libre", "Soly Sombra", "Gin Kas", eta holakuek. Beste batzuk ez hainbeste: "Amerikano", "Japones" eta abar. Bada bat "Vaca Verde" izenekua, esnia eta "Pipermin" a nahastuaz egitten dana, gerri azpikua berotzen daben familia daukana.


"Serraritxua" tabernia Berrixon dago, Elorrixo eta Elgeta bitartian. Serraritxo Zarra, itxuria, etzeuan moda berrixakin enterautu. Behin gazte erdeldun bat sartu jakon tabernara eta zera eskatu zotsan tente tente.

- Me pone una "Vaca Verde".

Serraritxuari koloriak aldatu jakon eta egon zan eskuan zeukan botiliakin buruan joteko be. Hola

kontestan zotsan bere onetik urtenda.

- Estoy de tontoarros hasta el kokote, las vacas en el estoste!!!



Gerra ostia zan. Familixa haundixa be bai, irabazixa motza eta erropak halamoduak. Miserixa gorrixa. Afalordua zan. Aittak frakak apurtuta zeuzkan aurrekalde-tik eta "dokumentaziño" guztia bistan. Alabia gelditu jakon begira, begixak zabal zabalik.

- Aitta, zer die horrek?

- Honek? Potruak.

- Tira gizon, umien aurrian ezta holakoik esaten.

- Ez, dauken gosiakin esaixezu arrautzak diela.

Angiolilloren urkamendia (Ahozko bertsioa)



Ez da oraindik urte gehiegi Angiolilloren urkamendia zuzenean ikusi zuten azkenengoak hil zirela. Hona hemen Hilari Gantxegi, Osintxuko Eguzkitza baserrikoak oraintsu kontatu ziguna, berak bere amandeari entzuna.

"Nere amandria bisabuela zan Larraña Handiko alabia, eta Larraña Handitik orduan be esnia. Da berak eztaikit hamazazpi ala hemezortzi bat urte, eta esan i eben e, esne bezeruak: "Badakizu biar ze funziño ero ze ikusmira dagon Bergaan?" "Da ze dago ba?" "urkamendixa" "Ene, urkamendixa dago?" Ta bai. "Ze ordutan" "Atsaldian" "Etxian lagatzen boste neuk pe etorri biot". Da esan ei eban etxian, da esan i otxen: "Kontuz ibili hari gero, batzui ez ei jakone ondo jausten da." "Ez jun biot pa".

Goiko plazan, juzgauan aurrian, altura haundi baten kolokauta ei euan silloi edar bat eta haraxe ekarri ei eben kotxe landuan, da jesuiten jantzixa jantzita, da danen publikuan abadia plantau ei jakon konfesau ero, beran asoluziñua emun ero, eitteko ero, ta. Berak zela Jangoikuai kontua emun bi otxan, abariak esan i otxan, da, ezetz, ezetz. Haura baiño len bera joiala bai, eta berak emungo otxala jangoikuai kontua.

Ez bereinkatu, ez konbertidu, ezetara be. Ta halaxe jaso ta plantau i eben. Esplikaziñuak eta bere orduak danak aillegau zienian, dana begi bista guztia tellaturaño ixota jentia. Baña ze jente i euan...Da ordenia emu otxanian, borruak tornuan uela ipiñi lepotik, tornuai emun buelta, zela itto-ben. Hauraxe i zan urkamendixa. Zela miñia papparian bera etara-ban. Ta sekula etxakola damutu".

Juan Martin Elexpuru

AGARRITXO

ZAPATA KONPONGEGIA

S. ARRIETA 3 Tfnoa: 76 12 21

ELKAR

Harruriaga 1, Behea

Tfnoa: 76 58 16

BERGARA

Fotokopiak
Enkuadernazioa
Jendearentzako faxa
Plastifikazioa
Planoen kopiak.

Gracian

HARATUSTEETARKO
OSAGARRIAK

Bidekurutzeta 6 Tfnoa: 76 10 25



GAZTELY S. A.

BURDINDEGIA

MINTEGI 1

Tfnoa: 76 32 48 / 76 34 50

BERGARA

□ Antzuolako karatekak

Antzuolako haur Karate Taldeak lehenengo mailara igotzea lortu zuen duela gutxi. Horretarako, Bilbon jokaturako Txapelketan parte behar izan zuten. Ekipoa Eduardo Jurado, Juan García, Iban Luna eta Jordan Sánchez-ek osatu, eta konpetizioa irabaztea lortu zuten. Zorionak!

□ Pilota Uberan

Igandean, San Pauloak ospatzen direla eta, III. Pilota Txapelketaren finala jokatuko da Uberako pilotalekuan. Aurrez-aurre, Gutierrez eta Eguren, Beitia eta Agirrerren aurka. 3. eta 4. posturako, berriz, Cesar eta Igartua, Muguruza anaien aurka.

□ Futboleko irabazi

Azkenean bai, garaipena lortu zuen Bergara taldeak Antiguoren kontrako partiduan, 2-0. Igandean, aukera berria nahiko makal dabilen UPVren aurka. Ea ba.

Kirol Zerbitzuko ikastaroak

Udaleko Kirol Zerbitzuak hurrengo hilabeteotarako programa borobildu du.

Alde batetik, gogoratu martxan daudela dagoeneko tenis eta igeri ikastaroak. Dena den, biek ere ekainera arte jarraituko dute, hil bakoitzeko 15ean txanda berriak zabalduko direlarik.

Kirol entrenamentua

Bestalde, otsailaren Sean bukatuko da kirol entrenamentuari buruzko ikastaroetan izen-emateko epea.

Klaseak ostegun arratsaldetan eta larunbat goizetan izango dira.

Arlo praktikoa lantzeaz gain, prestakuntza teknikoa, urtearen planifikazioa, prestakuntza psikologikoa edota biologikoari buruz jardungo dute.

Ikastaroan Itzi Ugarteburu, Amaia Aranzibia, Jose Julio Barrenetxea, Julen Masats, Ernesto Izagirre eta Alejandro Altunak hartuko dute parte.



Eskalada eta arku tiraketa ere bai

Gogoratu dezagun era berean, datorren martxoan eskalada ikastaroa abiaraziko dela, Kiroldegiko rokodromoan eta Aizarten. Eta apirilerako, berriz, arku tiraketa ikastaroa daukagu zain.

San Anton Krossa

Korrikalariek komentatu zuten, nahiko gogorra izan zen igandean San Antonen jokaturako krossa.

Hogeitamar lagun elkartu ziren proba korritzera, eta azkenean Xabier San Martin elgoibarrak irabazi zuen txapela. Bigarren postuan Jose Galan, eta hirugarrenean Jose Mari Lopez.

Neskei dagokionez, aipatu Amaia Mazurraga izan genuela antxixketan egiten ausartu zen bakarra.



IGERILEKUKO

TABERNA

EGUNEKO MENUA
AURREZ ESKATUTAKO
AFARIAK

Tfnoa: 76 53 55

CARASA

Kotxe aseguruak

Etxebizitza aseguruak...

D. Fleming 3, Behea BERGARA

Tfnoa: 76 15 24

**BEHERAPENAK
ZUBIETAKO**

**JUANAREN
DENDAN**



Erretratu honek ere makina bat urte dauzka gainean. 1930ekoa dugu.

Urbiako maldan gora joan ziren duela hirurogei urte argazkiko sei bergararrak. Ezkerretik eskumara Felix Agirreolea (antiojuekin), Txomin Marko, Jon Mendiola (zutik), Luis Zabala (Zabala farmaziakoa), Gaspar (Gaspar jatetxekoa) eta Jesus Ostolaza ikusten ditugu.

Seirak ere mendizale amorratuak omen ziren. Batzokiko lagunak, askotan elkartu ziren bazkari, afari, juerga eta, batez ere, mendi irteerak egitera. Aitzorrotz, Ernio, etab.etan zirrikitu guztiak ezagutzen zituzten.

Dagoeneko seirak hilda daude. Erretratu elegante hau utzi ziguten, dena den, orduan ere mendigoizaletasuna sasoi ederrean zegoela adierazteko. Jakingo balute duela aste batzuk bergarar gazte bat Akonkaguaraino ere heldu zaigula...

Argazkia: Aintzane Marko

Nahikari

Mahasterreka. 20
Teléfono, 76 57 71
20570 BERGARA



Raiñabal
Gozotegia

ARTEKALE 9, Tfnoa: 76 11 83
BIDEKURUTZETA 20/22, Tfnoa: 76 12 19

**ETXEBIZITZA**

- Pisu ederra salgai Irizar pasealekuan. Deitu 761708 Tfnoa.
- Pisua salgai edo alokairuan. Polita eta amueblatua. Deitu 762916 Tfno.ra, 21etatik aurrera
- Amueblatutako pisu bat alkilatzen da denboraldi baterako. Tfnoa: 8615-55, edo 862301.
- Pisua behar dut alkilerrean. Tfnoa: 764255.
- Gela independente bat alokatzen da. 762112.
- Konpondutako pisu txiki bat salgai, oso modu onean. Deitu 13.15etatik 14. etara. Tfnoa: 761079.

• Umerik gabeko andragizonek pisu bat behar dute alkilerrean, lehenbailehen. 781704, edo 941-209883.

• Baserria salgai Bergararik 3 km.ra. 770081, 10etatik letara eta 6etatik 8etara.

• Pisua salgai Koldo Elizalden. Tfnoa: 765823

• Lokal komertziala alkilatzen da bolun. Tfnoa: 763797.

• Pisua salgai Olan, konpondua eta amueblatua. Modu onean. 761669.

• Pisua alokatzen da Toki-Ederren. Gaez deitu 764988 Tfno.ra.

LANA

• 16 urteko neska euskaldunak umeak zainduko lituzke 3retatik 9ak arte. Tfnoa: 764061.

• Emakume euskalduna behar da, goizetan umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tfnoa: 763157.

• Emakume bat eskaintzen da lanerako. 765403.

DENETARIK

• Alemaneko klase partikularrak. 765697.

• Marrazki klaseak ematen dira FP, BUP, REM eta Ingenerutzako 1. mailakoentzat. 761330.

• Pintura klaseak. Tfnoa: 764014 edo 763493

• Ikasi josten zure astaldietan. 762858

• 20,50 m2ko garajea alkilatzen da Burdifatzen. Egin berria. 764003

• 55 m2ko lokala alkilatzen da. 765859, gaueko 9etatik aurrera.

• IPUIN dendaren albo-ko lokala alokatzen da. Galdetu Ipuin-en.

SALDU-EROSI

• Karrerako bizikleta ia berria salgai. Kuadroa Mercier, pieza gehienak Zeus. Prezio ona. 763269

Hildakoak

Sebero Fernandez Torrobal
Urtarrilaren 19an. 77 urte

Maria Larrañaga Arizaga
Osintxun. Urtarrilaren 20an. 67 urte

BERRIGARA

Eskatu eta etxean



76 03 97

BERROYA, E. A.


INPRENTA

OFFSET + TIPOGRAFIA
ENKUADERNAZIOA

Komenio 2

Tfnoa: 76 00 01

BERGARA



Bururik nahastu barik...

Porruak

Garbantzuk,

Berakatzak

Kilo bat tajada

Sardinak


Esnea

Sagarrak

Ogiak

Olioak

Gazta...



*Erosketak
hobeto egiteko.*

**ETA GAINERA sari eder bat
eskuratzeke aukera.**

Bergarako Udala



Euskara Batzordea